



2011-2012

## **JARRAIBIDEAK, Hezkuntza-sailburuordearenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoei deitzeko, 2011-2012 ikasturtean Aniztasunari Erantzuteko programak egiteko eskaerak egin ditzaten.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan hezkuntza berriztatzeko prozesuak sustatzen ari da, bai berariazko deialdien bidez bai zuzenean aldaketak sartzera bideratutako jarduerak proposatuz, aipatu ikastetxeen irakaskuntza- eta antolakuntza-jarduna hobetze aldera. Sailaren jardunaren helburua denez sistema gero eta inklusiboagoa izatea, berariaz ari da sustatzen programa eta neurri jakinak, ikastetxeek kalitatezko eta ekitatezko irizpidez erantzun diezaioten ikasleen aniztasunari.

Azken hamarkadatan ikastetxe guztiek parte hartu dute, oro har, proiektuen deialdietan, eta aurrerapen handiak lortu baitira, irakasleak gero eta gaituagoak baitaude eta ikasgeletan lantzen diren didaktikak gero eta hobetoagoak baitira.

Haur Hezkuntzarako, Oinarrizko Hezkuntzarako eta Batxilergorako curriculumak ezarri ondoren eta oinarrizko gaitasunen ikuspegia hartu ondoren, beharrezkoa da praktika pedagogikoa berrikustea, egungo gizartearen eskakizunetara egokitzeko. Funtsean, helburua da ikasle guztiak gaitzea herritar arduratsu, parte-hartzaile, kritiko eta tolerantak izateko, eta gai izateko informazioaren eta jakintzaren gizartean mugitzeko; horrez gain, helburua da ikasleak gai izatea egokitasunez eraikitze beren bizitza pertsonaleko eta profesionaleko proiektuak.

Horrekin batera, ebaluazio-diagnostikoa izeneko kanpo-proba ezarri da ikastetxe guztietan, eta horri esker ikastetxe bakoitzak lortutako emaitzen berri izateko aukera dugu, bai eta emaitza horiek aztertze dinamika parte hartzaileak ezartzeko eta hobekuntza-planak egiteko ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak uste du oso inportantea dela praktika edo jardun horiek finkatzen joatea irakasleen, eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen eguneroko zeregin profesionalean. Irakaskuntza jarduna eta Hezkuntza Sailak adierazten dituen jardun-eremuak aztertze prozesu zorrotzak oinarritzat hartuta, ikastetxeek gai izan behar dute beren beharrezko errealak hautemateko, eta beren hezkuntza-jardunaren kalitatea eta ekitatea hobetzeko jardura-ildoak diseinatu, planifikatu eta betetzeko. Horrek esan nahi du proiektuek aparteko izaera izateari utziko diotela pixkanaka, eta lan-jardun arrunteko proposamenak bilakatuko direla; hala, aniztasunaren arreta landuko dute parametro inklusiboetatik, eta ikastetxe bakoitzaren urteko plangintzan adieraziko dira horiek guztiak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak badaki baliabide ekonomiko eta pertsonalak jarri behar dituela ikastetxe bakoitzak planifikatzen dituen ekintzak inplementatzeko. Hala ere, aurrez adierazitako planteamendu horrekiko koherentziari eusteko, baliabideen esleipena modu progresiboan esleituko dira ikastetxe bakoitzaren egitura arruntei; hala, irakasleen ratioak edo hornidura ekonomikoak handituko dira, kasu bakoitzak eskatzen duen moduan eta aurrekontu-baliabideak aintzat hartuta. Ikuspegi horrek aukera emango die ikastetxeei beren autonomia erabiltzeko eta inklusioaren inguruan antolatze egokien irizten duten moduan, prestakuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren alorrean planteatzen diren helburuak betetzeko.



Finean, ikastetxe bakoitzak, dituen behar eta aurreikuspenen nahiz eskura dituen edo esleitzen zaizkion baliabideen arabera, eta bere hezkuntza-proiektuan oinarriturik, jarduketa-plana ontzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu beharko ditu; plan horretan, haren baitan landuko diren proiektu guztiak bildu eta koordinatu beharko dira, behar bezala batu eta uztartuta eskola-komunitate osoan eragin positiboa izan dezaten. Lan horretan, berritzeguneen aholkularitza eta laguntza izango dute ikastetxeek.

Berriazko xedeei edo esku-hartze motari dagokienez, programak askotarikoak izan daitezke, baina helburu orokor bera dute: ikastetxeetan ikasle guztien heziketa osoaren mesederako izango diren hezkuntza-jarduerak aurrera eramatea ahalbidetzea.

#### ***Lehena.- Xedea.***

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoei deitzea, programa hauek egin ditzaten 2011-2012 ikasturtean:

- A - 1. Kulturartekotasunaren sustapena: kulturarteko dinamizazioa eta hezkuntza-errefortzua.
- A - 2. PROA plana: laguntza-plana.
- A - 3. PROA plana: Indartze, Orientazio eta Laguntza Programa.
- A - 4. Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programak (HBSP).
- A - 5. Curriculum Anitzeko Programa.

Adierazitako programak onartuta dituzten ikastetxeek aukera izango dute irakasleak prestatzeko jarduerak eskatzeko, baldin eta horien helburua bada eremu espezifikoan prestakuntza jasotzea, eta horien xedea bat badator programaren xedeekin eta haiek ez baditu berriaz eskaintzen Hezkuntza Sailak.

#### ***Bigarrena.- Baldintzak***

Eskaerak onartuko badira, programa bakoitzean zehazten diren baldintzak bete beharko dira. Hauek izango dira programa guztien baldintza komunak.

- a) Ordezkaritza-organo gorenak onartu behar du programa egitea.
- b) Ikastetxearen urteko planean sartzeko konpromisoa hartu behar du ikastetxeko OOGak, baldin eta aukeratua izaten bada.
- c) Programaren koordinatzailea izendatu beharko da, eta pertsona horrek ezaugarri egokiak izan behar ditu, ikastetxea ezagutzen duelako, inplikaturik dagoelako, behar adinako prestakuntza duelako eta prozesua dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna duelako. Pertsona horri edo horiei programak egiteko ordutegi-kredituak emango zaizkie, baldin eta kasuan kasuko programak hala aurreikusten badu.
- d) Programa koordinatzen duen pertsonaren konpromisoa izango da Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak proposatzen duen berriazko prestakuntzan parte hartzea.
- e) Ikastetxearen konpromisoa izango da programaren jarraipena egiten laguntzea eta Berritzeguneek antolatzen dituzten jardueretan parte hartzea, programa horietan parte hartzen duten ikastetxeen topagunea, koordinaziorako lekua eta aholkuak jasotzeko puntua izateko xedea duten heinean.
- f) Programa lantzeko konpromisoa, deialdi bakoitzean ematen diren jarraibideak betez.
- g) Programaren jarraipena eskatzen baldin bada, baldintza izango da 2010-2011 ikasturtean landu den programaren balorazioa positiboa izatea.



***Hirugarrena.- Eskaerak eta dokumentazioa.***

- 1) Programak eskatzen dituzten ikastetxeek, bai lehen aldiz eskatzen dutenek, bai programaren batekin jarraitzea eskatzen dutenek, dokumentazio hau aurkeztu behar dute:
  - a) Eskaera, Jarraibide hauetako I. Eranskinean adierazten den eredu normalizatuaren arabera.
  - b) Programa bakoitzean eskatzen diren berriazko eranskinak.
  - c) Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, koordinatzaileak izendatzen dituen. Ziurtagiri horretan bertan, eskatutako programetan zehazten diren konpromisoak beren gain hartu beharko dituzte koordinatzaileek. (II. Eranskina)
- 2) Berriazko deialdian zehazten diren jarraibideak beteko dituen proiektu bat aurkeztu behar dute 2010-2011 ikasturtean onartuta ez duten programa bat eskatzen duten ikastetxeek, baldin eta aipatutako berriazko deialdian honela esaten bada.

***Laugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua***

- 1.- 2011ko **maiatzaren 6an** amaitzen da eskaerak egiteko epea, egun hori barne.
- 2.- Hezkuntza berriztatzeko lurraldeburuei zuzenduko zaizkie eskaerak, eta hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan aurkeztuko dira. Eskaera behin bakarrik aurkeztuko da, eta, eskaera horretan, batera aurkeztuko dira hautatutako programa guztiak.
- 3.- Dokumentazio guztiaren 3 ale entregatuko dira (originala eta 2 fotokopia).

***Bosgarrena.- Hautaketa-batzordea***

Eskaerak barematuko ditu Hautaketa Batzordeak, eta hautatutako ikastetxeen zerrendak egingo ditu. Hauek osatuko dute:

- a) Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo horrek eskuordetzen duena; batzordeburua izango da.
- b) Hezkuntza berriztatzeko lurraldeburuak edo hark eskuordetzen dituen pertsonak.
- c) Berrikuntza-zerbitzuetako eta irakaslegoaren hobekuntzarako zerbitzuetako buruak.
- d) Ikuskari nagusiak izendatutako ikuskari bat.
- e) Berritzeguneko bi zuzendari, hezkuntza berriztatzeko zuzendariak izendatutakoak.
- f) Ikastetxeetako Zuzendaritzak izendatutako teknikari bat.
- g) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, hezkuntza berriztatzeko zuzendariak izendatua; idazkari-lanak egingo ditu.

Hautaketa batzordeak txostenak eta/edo laguntza eska diezaieke hezkuntza-gaietan aditu diren pertsona edo aholkulariei, aurkeztutako eskaerak behar bezala ebaluatu eta aztertu ahal izateko.

Hautaketa Batzordeak erabakiko du zer programa hautatuko diren eta zer esleipen ekonomiko egin eta ordu-kredituak emango zaizkien. Hezkuntza-sailburuordeari igorriko diote ebazpen-proposamena. Edonola ere, ikastetxe bakoitzari onar dakioken programen kopurua erabaki dezake Batzordeak, ikastetxearen tamainaren arabera eta aurreko urteetan ikastaroetan izan duten parte-hartzearen arabera, eta aintzat hartuta, betiere, haiek batera egitea bideragarria den ala ez.

2011ko maiatzaren 20an argitaratuko da hezkuntza-sailburuordearen behin-behineko ebazpena. Ikastetxeek maiatzaren 25a arte izango dute, egun hori barne, egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, maiatzaren 31n argitaratuko da behin betiko ebazpena. Salbuespenez, uztaileko lehen hamabostaldira atzeratuko da Curriculum Anitzeko taldeak baimentzeko programei buruzko behin-behineko ebazpena.



### *Seigarrena.- Ebazte-prozesua*

Programa bakoitzari dagokion baremoaren arabera baloratuko dira aurkeztutako programak. Edonola ere, puntuazio hau gehituko zaie horiei guztiei:

#### 1. Egoera sozioekonomikoa (bekadunen **P** portzentajea)

$P < 40$	0 puntu
$40 \leq P < 50$	1 puntu
$50 \leq P < 60$	2 puntu
$60 \leq P < 70$	4 puntu
$70 \leq P < 80$	6 puntu
$80 \leq P < 90$	9 puntu
$90 \leq P$	12 puntu

Puntuazio hori ofizioz esleituko da, Hezkuntza Administrazioak dituen datuen arabera.

### *Zazpigarrena.- Aukeratzen diren ikastetxeen betebeharrak*

Aukeratutako ikastetxeek eginbehar hauek bete behar dituzte:

- Programa bakoitzean berariaz adierazten diren betebeharrak.
- Programaren koordinatzaileak, zuzendaritza-taldearen laguntzaz eta, hala badagokio, koordinazio-taldearen laguntzaz, programaren abiaraztea dinamizatuko du, eta irakasleen, ikasleen, familien eta ikastetxeko gainerako eragileen partaidetza bultzatuko du.
- Programaren koordinatzaileak programa-modalitate bakoitzerako zehazten diren saioak erabiliko ditu ikasturtean zehar programaren arrakasta bermatzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduerak planifikatzeko, koordinatzeko eta garatzeko, eta aktetan jasoko beharko da horien guztien aipamena.
- Ikastetxeak, irakasleen ordutegia planifikatzean, aintzat hartuko du programaren koordinatzaileak Berritzeguneez ezarritako prestakuntza- eta koordinazio-ekintzetan parte hartzeko modua izan behar duela, programa behar bezala betetzeko beharrezkoak diren heinean.
- Programaren jarraipena egiteko laguntza eman behar diote zonako berritzeguneari.
- Programa bakoitzean zehaztutako helburuetarako erabiliko dituzte ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak.
- Programa bakoitza azalduko duen memoria bat egingo du ikastetxe bakoitzak ikasturtearen amaieran, eta bertan zehaztuko dira programaren baitan izan diren lorpenak, programan bertan aldeztu aurretik ezarri diren ebaluazio-adierazleen arabera. Ikastetxeko urteko memorian jasoko da memoria hori.

### *Zortzigarrena.- Ikastetxeei emango zaizkien baliabideak*

Baliabide hauek izango dituzte hautatutako ikastetxeek:

- Programa bakoitzarentzat zehazten diren ordu-kredituak, baimenak eta/edo hornidura ekonomikoak.
- Programa dinamizatu eta lantzeko prestakuntza, programaren koordinatzaileentzat eta/edo programan parte hartzen duten pertsonentzat, programa bakoitzean adierazten den moduan.
- Berritzeguneez programa bakoitzean emango duten laguntza.

***Bederatzigarrena. - Jarraipena eta ebaluazioa***

Zonaldeko berritzeguneez programa guztiei buruzko aholkularitza emango dute.

Zonaldeko berritzeguneez eta Hezkuntzako Ikuskaritzak egingo dituzte programa guztien jarraipena eta ebaluazioa, Curriculum Anitzeko programenak izan ezik. Azken programa hauen jarraipena eta ebaluazioa Hezkuntzako Ikuskaritzak egingo ditu.

Hirugarren hiruhilekoan, baterako ebaluazio-saio bat egingo da ikastetxe guztietan, ikastetxearen (zuzendaritza-taldea eta koordinatzailea) eta zonaldeko berritzegunearen artean. Saio horretan aztertuko da programaren emaitzek helburuekiko lortu duten betetze-maila, eta ikastetxeak hurrengo ikasturterako egiten dituen hobekuntza-proposamenak, Programaren Garapenerako Orientazioetan ezarri diren jarduera-ildoekin bat etorritik. Hori guztia ikastetxeak egin behar duen memorian jasota geratuko da. Balorazio-txosten bat egingo du berritzeguneez, eta programari jarraipena emateko aintzat hartuko den baremoaren parte izango da txosten hori.

***Hamargarrena.- Datuen babesa***

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoari eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Prestakuntzako eta Berrikuntzako Proiektuak izeneko fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espeditente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen diren ikastetxeei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak betetzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara, hain zuzen ere: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 4an

Maria Antonia Ozcáriz Rubio  
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



## ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

### I. ERANSKINA

 KODEA:      

IKASTETXEA: .....

..... jauna/andrea, ..... NAN zenbakia duena, ikastetxeko zuzendaria eta Ordezkaritza Organo Goreneko presidentea naizen aldetik, honako hau

**ADIERAZTEN DUT:** Aniztasunari Erantzuteko programak egiteko jarraibideak ezagutzen ditut, eta ordezkatzan dudan ikastetxeak jarraian adierazten diren programetan parte hartu nahi du.

Eskaera			Programaren izena	Modalitatea
Berria	Jarraitzea	Noiztik parte hartzen du		
			A1.1- Kulturartekotasunaren sustapena: Kulturarteko dinamizazioa	
			A1.2- Kulturartekotasunaren sustapena: Hizkuntza-errefortzua	
			A2. - PROA PLANA: laguntza-plana	
			A3. - PROA PLANA: Indartze, Orientazio eta Laguntza Programa	
			A4. Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programak (HBSP).	
			A5. Curriculum Anitzeko Programa (AC)	Ikasturte 1ekoa
				2 ikasturtekoa (1. urtea)
				2 ikasturtekoa (2. urtea)

HAU ZIURTATZEN DUT:

1) Klaustroak, .....(e)an egindako bilkuran, adierazten du irakasle guztiak ezagutzen dituztela aurkeztutako programa guztiak eta onartu egiten dituela programa horiek ikastetxearen barne-antolamenduan izan ditzaketan ondorio guztiak. Horrez gain, bere gain hartzen ditu prestakuntza-konpromisoak eta aurkeztutako programen jarraibideak betetzeko eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko konpromisoak.

2) Ordezkaritza Organo Gorenak, .....(e)an egindako bilkuran, aniztasunari buruzko programetan parte hartzeko eskaera onartzen du, eta bere gain hartzen du haiek urteko planean sartzeko konpromisoa, baldin eta onartuak izaten badira.

.....(e)n, 2011ko .....aren .....(e)(a)n.

ZUZENDARIA (sinadura eta zigilua)



## II. ERANSKINA

Zuzendaritza honek ziurtatzen du, jarraibide hauetan agintzen denari jarraituz, irakasle hauek proposatzen direla eskatutako programen koordinatzaile edo irakasle izateko:

Programaren izena	Koordinatzailea edo irakaslea	Espezialitatea	HE	NAN	Administrazio-egoera
A1.1- Kulturartekotasunaren sustapena: Kulturarteko dinamizazioa					
A1.2- Kulturartekotasunaren sustapena: Hizkuntza-errefortzua					
A2. - PROA PLANA: laguntza-plana					
A3. - PROA PLANA: Indartze, Orientazio eta Laguntza Programa					
A4. Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programak (HBSP).					
A5. Curriculum Anitzeko Programa (AC)					

Irakasle horiek beren gain hartzen dituzte programa-modalitate bakoitzerako jarraibide hauek adierazten dituzten konpromisoak.

.....(e)n, 2011ko .....aren .....(e)(a)n.

ZUZENDARIA

(sinadura eta zigilua)